

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Ibilgailua (4881 BVH) bide publikotik kentzea

Orain dela bi hilabete baino gehiago 4881 BVH ibilgailua, Seat markakoa, bide publikotik erretiratu zen eta oraindik ere udalaren biltokietan gordeta dago, aginduzkoak diren izapideak eta jakinarazpenak egin arren haren jabeak ez baitira agertu hura jasotzeko, ibilgailua erretiratzeko zerbitzuagatik eta udalaren biltokian egondako aldiagatik sortutako tasak aurretiaz ordainduta.

Bat etorri Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak (1992ko azaroaren 27ko BOE) 59-4 eta 61. artikuluetan xedatutakoarekin, iragarki honen bitartez jakinarazten zaio haren jabeari.

Jabea edo haren legezko ordezkaria udalaren bulegoetara azaldu beharko dira haren kargu egiteko, bere gordailu eta zaintzagatik ordaindu beharreko diru kopururik sortzen jarraitu ez dezan, eta orobat txatar moduan saltzea ekiditeko.

Jabearen asmoa bere ibilgailuari udal honen alde uko egitea baldin bada, udalaren bulegoetara etorri beharko du 15 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aipatu den ibilgailua udalaren biltegian bi hilabete baino denbora luzeagoan gordeta egon denez, eta bat etorri apirilaren 21eko 11/1999 Legean xedatutakoarekin, ondoko hau ohartarazten zaie haren jabeai:

Hamabost egun igaroz gero, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako ibilgailua hiri hondakin solidoaren moduan tratatuko da.

Dulantzi, 2021eko uztailaren 12a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA